



• DEABRUAREN ABOKATUA •

“Bigarren aukerarik gabe... nola demostratu ikasi duzun ala ez?”

Rafa Rueda | Musikaria

Gaztea baina sobera aritua. Hirugarren diskoa prestatzen dabil ohiko ganora handiaz. Noiz irekiko arrakastaren atea?

FERMIN ETXEGOIEN

Argazkia: Dani Blanco

PiLT garaian jainkoa hil zenuen kantu-kolpe baten bidez eta harrezkero bakarka ibiltzera kondenaturik zaude!

Gorputzak aspaldi eskatzen zidan beste ildo bateko musika jorratzea. Momentua heldu zenean, bakarka agertzea hoberena iruditu zitzaidan proiektu biak ezberdintzeko. Batean zein bestean halako jendearekin ibiltzea bedeinkapena da, kondena baino.

Dena den: zure izen-abizen horiekin, bizitza ziklikoa dela pentsatuko duzu...

Baina ez du esan nahi bueltan datorrena aurrez ezagutzen duzunik. Momentu guztiak diferenteak dira, nahiz joerak errepikatu. Bigarren aukerarik gabe... nola demostratu ikasi duzun ala ez? Beharbada izenarena ez da kasualitatea.

Musikari modura “ezaguna bezain ezezaguna” zarela esango nuke. Zure bertsioa entzun nahi dut...

Diesel naizela esango nuke. Apurka-apurka bere bidea egiten ari den tipoa. Honetan presa ez da batere ona. Alde horretatik nahiko pozik nago. Iragarkian bezala, “gaur atzo baino gehiago eza gutzen zaitut, baina bihar baino gutxiago”. Honelako joera den bitartean seinala ona!

Jeff Buckley edota Elvis Costello aipatu izan dituzu maiz. RRk zer dauka... haiek ez daukatena?

Batez ere... asko ikasteko! Gizabanakoak beti dauka eskaintzeko beste inork eskaini ezin duen zerbait. Ez naiz Elvis Costello bezain kantugile ona, ezta Jeff Buckley bezalako kantari aparta. Horrela ez balitz ere, derrigortuta nengoke ezberdina izatera, nire bizipenak bestelakoak direlako. Ekinaren ekinez norberaren kutsuek izaera propioa hartzen dute bukaeran.

Euskal Herrian inor al zaizu eredugarri?

Hainbat jende. Mikel Laboa edo Ruper Ordorika, Anari, Joseba Irazoki edo Saioa izeneko kantari berria. Sorkuntza mailan garenaren isla baino, izan gaitezkeenaren isla garela uste dut.

Euskara “mundua ikusteko modu bat” dela aldarrikatuz emanaldiak eskaini zenituen (Kirmen Uribe eta Mikel Urdangarinekin) Dublin, Berlin, New York, San Frantziskon... Tesia demostratu nahian?

Buelta ugari eman ditugu *Zaharregia*... emanaldiarekin, oso esperientzia ederra izan da, konplexuak kentzeko baliagarria. Euskara mugatzat hartu ordez, hizkuntzaren erakargarritasunaz konturatzen lagundu digu, poesia edo musikaren balio unibertsalez aparte.

Espainolez abestu izan bazenu...

Beste nonbait jaio banintz bezalako hipotesiekin espekulatzea da. Hizkuntza aukeratzean zintzotasun ariketa dago, zure produktuaren zintzotasunerako erabakigarria dena.

Alega, Mungian jaio izana tokatu ez bazitzaizun, non jaio nahi izango zenukeen?

Mmmm... beharbada Islandian. Handik heltzen den guztiak kuriositate handia pizten dit, mende baldean zabalduta dagoen globalizaziotik apur bat aldentuta ikusten dut, baina ez inkomunikatua. Erakargarri eta misteriotso.

Bakarlari gisa arrakastara behartuta al zaude?

Behartuta... Arrakasta modu askotara ulertu daiteke. Norbaitek zure disko baten kostua ordaintzea bada arrakasta. Gezurra litzateke jendearen onarpena behar ez dudala esatea, baina niretzat apurka-apurka haziz joatea eta maite dudak hau egiten jarraitzeko aukera izatea da arrakasta. ■